

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 529/2017 Foru Agindua, irailaren 27koa, 289 eredua onartzen duena finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan**

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak, zeinetako kide baita Espainiako Erresuma, azken urte hauetan sistema bat garatu du, Finantza Kontuei buruzko Zerga Arloko Informazioa Automatikoki Trukatzeako Estandarra izenez ezagutzen dena, eta CRS edo Common Reporting Standard delakoan (Aitorpen-Estandar Erkidea) zehazten diren aitortpen eta arreta egokiko prozeduretan oinarritzen dena.

Sistema hori hartzeko arau oinarria, Espainiako Erresumaren kasuan, Zerga Arloko Elkarrekiko Administrazio Laguntzarako Hitzarmena da, Estrasburgon 1988ko urtarrilaren 25ean egina, eta 2010ko maiatzaren 27ko zuzenketa protokoloaren bidez aldatua. Horren 6. artikulua ahalbidertu egiten du bera izenpetu duten estatuen artean zerga arloko informazioa automatikoki trukatea, baina badaude beste arau tresna batzuk, truke automatikorako erabil daitezkeenak.

Era horretan, 2014ko urriaren 29an, Espainiako Erresumak Berlingen agintaritzaren eskudunen alde anitzeko akordioa izenpetu zuen, zeinaren bidez adierazi baitzuen informazio truke automatikoa 2017an hasteko asmoa zuela, 2016ari dagokion finantza kontuen informazioari buruz.

Agintaritzaren eskudunen alde anitzeko akordioak, Espainiako finantza erakundearen eginbeharrak ezartzen ditu: alde batetik, herrialde edo jurisdikzio sinatzaileetako egoiliarrek titulartasuna edo kontrola daukaten kontuak identifikatzea eta, beste aldetik, urtero finantza kontu horien gaineko informazioa ematea Espainiako zerga administrazioari, batean nahiz bestean CRS edo Common Reporting Standard delakoan araututako prozeduren arabera.

Europar Batasunaren eremuan, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauak, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzkoak eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duenak, ezartzen zuen Batasuneko estatuak nahitaez eman behar ziotela elkarri informazioa modu automatikoan, baina bakarrik errenta eta ondorearen ingurukoa, finantzetakoa ez bestelakoa, eta baldintza modura ezarrita informazioa baliagarri egon behar zela. Batasuneko estatuak finantza kontuetara zabaldu nahi izan dute beren arteko informazio truke automatikoaren eremua, ELGEk prestatutako informazio trukeko estandar komunarekin bateratuta eta koordinatuta, eta horretarako onartu zen Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentaraua, 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena fiskalitatearen inguruko informazioa modu automatikoan nahitaez trukatu behar izateari dagokionez. Arau horrek zabalgotu egiten du estatu kideek beren artean trukatu behar duten informazioaren eremua, eginbeharrak horiek Finantza Kontuei buruzko Zerga Arloko Informazioa Automatikoki Trukatzeako Estandarrean jasotzen direnekin parekatuz. Horrela, berdindu egiten da estatu kideen eta beste estatu batzuen arteko administrazio lankidetzaren helmena eta arras txikiagotzen dira finantza erakundeek hura betetzeko kostuak, horiek finantza kontuen identifikazioa aitortpenari buruzko araudi erkide bat erabiliko baitute. Halaber, informazio truke hau Espainiarekin informazioa eman beharra dakarren akordioa sinatuta daukan beste edozein herrialde edo jurisdikzioarekin ere egin daiteke, harekin informazioa trukatzeko elkarrekikotasuna baldin badago.

Azaldutakoa gogoan hartuz, eta kontuan izanik maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Ekonomia Itunaren 2. Bat atalean akordioaren printzipio orokorretako bat bezala ezartzen duela lurralde historikoei ezartzen duten zerga sistema Estatu espainiarrak izenpetu

eta berretsi dituen edo bera atxikitzen zaien nazioarteko tratatu eta hitzarmenen pean egongo dela, Arabako zerga sistemak aurrera egin du, bai arau mailan bai erregelamendu mailan, informazio eginbehar berria eranstean.

Ilido horretan, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, hogeita bigarren xedapen gehigarrian finantza erakundeen eginbehar hauek ezartzen ditu: finantza kontu jakin batzuen titularren egoitza identifikatzea eta horien gaineko informazioa ematea zerga administrazioari, elkarrekiko laguntzaren esparruan.

Gai hau Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren bidez garatu da. Dekretu horrek ezartzen du finantza kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola daukaten pertsonen zerga egoitza identifikatu beharra, eta haiei buruzko informazioa eman beharra, elkarrekiko laguntzaren esparruan, eta funtsezko bi ondorio sortzen ditu. Alde batetik, kontuen titularren eta horien kontrola daukaten pertsonak identifikatzeko beharra edozein herrialde edo jurisdikziotako egoiliarrei ezartzen die, berdin izanik Espainiak lurralde horrekin informazioa trukatzeko konpromisoa hartu duen ala ez. Beste alde batetik, foru dekretuak geure antolamendu juridikoari eranstean dizkio titularrak eta kontuen kontrola daukaten pertsonak identifikatzeko eta aipatutako CRS sistema oinarri hartuta informazio hori aitortzeko prozedurak (arreta egokiko arauak).

Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretu horrek, 4. artikuluan, xedatzen du elkarrekiko laguntzaren esparruan finantza kontuetatik sortutako urteko informazio aitortpena urterokoa izango dela eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez erabakitako eran, lekuan eta epean egingo da.

Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluan emandako berariazko gaikuntzaz baliatuz, eta Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonetik eragiketen inguruko informazio emateko beharra arautzen duenak, 6.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, foru agindu hau ematen da, 289 eredua onartzen duena (finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan).

Zergak lkuskatzeko Zerbitzuak horren inguruan emandako txostenari atxiki zaio.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

### **1. artikulua. 289 eredua onartzea (finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan)**

Onartzen da 289 eredua (finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan). Urtero aurkeztu beharko du foru agindu honen 2. artikuluan adierazten denaren arabera hartara behartuta dauden finantza erakundeek, eta Arabako Foru Aldundiari bidali beharko diote mezu informatikoen bidez, agindu honen 5. eta 6. artikuluetan ezarritako formatuaren eta diseinuaren arabera, eta gutxienez aginduaren III. eranskinean adierazten den edukia hartuz barnean.

### **2. artikulua. 289 eredua aurkeztera behartuak**

Honako hauek auzeratu behar dute finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan (298 eredua): otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuak 2. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztutako finantza erakundeek –dekretu horrek ezartzen du finantza kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola daukaten pertsonen zerga egoitza identifikatu beharra, eta haiei buruzko informazioa eman beharra, elkarrekiko laguntzaren esparruan-.

### **3. artikulua. Informazio gaia**

Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta 5. artikuluko horretako 2. idatz zatian aurreikusitako salbuespenekin, foru agindu honen III. eranskinean zehaztutako informazio osoa aitortu beharko da 289 ereduan, otsailaren 21eko

6/2017 Foru Dekretu horren 4. artikuluan aipatzen diren eta foru agindu honen I. eranskinean zerrendatzen diren herrialde edo jurisdikzioetakoren batean zerga egoiliarak izan eta finantza kontuen titulartasuna edo kontrola daukaten pertsona edo entitateen gainean.

#### **4. artikulua. 289 eredua aurkezteko epea**

Informazio aitorpenaren aurkezpena urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean egin beharko da, aurreko azken urteari buruzko finantza informazioari dagokienez.

#### **5. artikulua. Elkarrekiko laguntzaren esparruan finantza kontuen urteko informazio aitorpena aurkezteko baldintzak eta prozedura**

1. Behartuta dauden finantza erakundeek informazio aitorpenaren 289 eredua bide elektronikotatik aurkeztu behar dute, horretarako zehaztutako web-eko zerbitzuen bitartez, eta ziurtagiri elektronikoko kalifikatuaren bidez identifikatu beharko dira.

Halaber, foru agindu honen 1. artikuluan aipatu diren mezu informatikoak foru agindu honen I. eranskinean jasotzen den zerrendaren arabera bereizita aurkeztu beharko dituzte, nolakoak diren:

a) Egoitza jurisdikzioa honako hauei dagokien kontuen erregistroak: Europar Batasuneko estatu kideak; Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentaraua, Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentarauak aldatua, aplikatzekoa zaion edozein lurralde; edo aurretik aipatu den otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 5. artikuluan zehaztutako informazioa eman beharra dakarren akordio bat Europar Batasunarekin sinatuta daukan beste edozein herrialde edo jurisdikzio.

b) Gainerako herrialde edo jurisdikzioetako kontuen erregistroak, horiekiko ondorioak izan baditu agintaritzak eskudunek finantza kontuen informazioa automatikoki trukatzeko alde anitzeko akordioak, eta haiekin elkarrekikotasuna badago informazio trukearen kontuan; baita ere, aurretik aipatu den otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 5. artikuluan zehaztutako informazioa eman beharra dakarren akordio bat Espainiarekin sinatuta daukaten herrialde edo jurisdikzioetakoak.

Aitorpenean akatsik izanez gero, errefusatzeko arrazoirik ez dagoen kontuen erregistroak bakarrik onartuko dira. Kasu honetan, onartutako eta errefusaturako kontuen erregistroen zerrendak jasoko dira erantzunaren mezu informatikoan, haiek onartu ez izanaren arrazoia adierazita. Errefusatzekotan, finantza erakundeak beharrezko zuzenketak egin beharko ditu eta berriro aurkeztu beharko du, aurkezpen horren barruan lehenago errefusatu ziren kontuen erregistroak jasoz. Kontuen erregistroetakoren bat onartzen bada, erantzunaren mezu informatikoak egiaztatze kode seguru bat edukiko du, 16 karakterekoa, aurkezpen egunaz eta orduaz gainera.

#### **6. artikulua. Mezu informatikoen formatua eta diseinua**

Elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen informazio aitorpena gauzatzen duten mezu informatikoen formatua eta diseinua, baita haren edukia (foru agindu honen III. eranskinean zehazten dena) osatzen duten elementuak ere, unean unean Arabako Foru Aldundiaren webgunean (<http://www.araba.eus>) jasota daudenak izango dira.

#### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Bakarra. Inbertsio kolektiboko funtsak.

1. Azaroaren 4ko 35/2003 Legea, inbertsio kolektiboko funtsena, aplikatzekoa zaien erakundeetara honako hau aplikatuko zaie:

Entitate kudeatzailea ez den entitate batek merkaturatzen dituen inbertsio funtsak azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak, ezartzen duenak finantza kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola daukaten pertsonen egoitza identifikatu beharra, eta horiei buruzko informazioa eman beharra elkarrekiko laguntzaren esparruan, eranskineko VIII. B sekzioko 9. idatz zatian xedatzen

duenetik salbuetsitako inbertsio kolektiboko tresnatzat hartuko dira, baldin eta partaidetza guztien merkaturatzea beste batzuen kontuko kontu globaletako erregistro sistema baten bidez egiten bada eta kontu globalak beren izenean erregistratuta dauden entitatea edo entitateak finantza erakundeak badira, salbu eta azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskineko VIII. sekzioko D.7.ii) idatz zatian azaldutakoak.

b) Kapital aldakorreko inbertsio sozietateak (SICAV direlakoak) azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskineko VIII. B sekzioko 9. idatz zatian xedatzen denetik salbuetsitako inbertsio kolektiboko tresnatzat hartuko dira, baldin eta sozietate horien akzio guztiak Espainiako balore burtsetan edo burtsa merkatu alternatiboan negoziatzen badira eta guztiak zaintza kontuetan gordailatuta badaude informazioa ematera behartuta dauden eta aurretik aipatutako azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluetan aurreikusitako eginbeharrak betetzen dituzten finantza erakundeetan. Kasu horretan, mota honetako finantza kontuak berrikusi, identifikatu eta, hala dagokionean, haiei buruzko informazioa eman beharra, kapital aldakorreko inbertsio sozietateak jaulkitako akzioak gordailatuta dauden zaintza kontuak dauzkaten finantza erakunde horiek izango dute.

Aurretik esandako tratamendu bera aplikatuko zaie azaroaren 4ko 35/2003 Legea, inbertsio kolektiboko funtsena, garatzen duen Arautegiak (uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onartua) 79. artikuluan arautzen dituen inbertsio kolektiboko funtsei, baldin eta horien akzioak edo partaidetzak negoziatzeko onartuta badaude balore burtsan; berrikusi, identifikatu eta, hala dagokionean, informazioa emateko eginbeharrak informazioa ematera behartuta dagoen, akzioen zaintza kontua daukan eta otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 3. eta 4. artikuluetan ezarritako eginbeharrak betetzen dituen finantza erakundeari dagozkio.

2. Atzerriko inbertsio kolektiboko funtsak izan eta Espainian beste batzuen kontuko kontu globaletako erregistro sistema baten bidez merkaturatzen badira, Espainiako merkaturatzaileak izango du berrikusi, identifikatu eta, hala dagokionean, informazioa emateko eginbeharra, berak merkaturatzen dituen akzio edo partaidetzei buruz.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta 2016ari buruzko urteko informazio aitopenenaren 289 eredua aurkezteko aplikatuko da lehenengo aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 27a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*

**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**

## I. ERANSKINA

Finantza entitateek elkarrekiko laguntzaren esparruan aurkeztu beharreko finantza kontuen urteko informazio aitortpena (289 eredu) dagokien egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda.

Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikulua a) letra (*)		Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikulua b) eta c) letrak (*)
EB	EBrekin hitzarmena duten herrialdeak	AMACen eraginpean izango diren herrialde eta jurisdikzioak eta alde biko hitzarmena duten herrialdeak
2017	2017	2017
Alemania	Liechtenstein	Argentina
Austria	San Marino	Barbados
Belgika		Bonaire (Herbehereak)
Bulgaria		Kolonbia
Zipre		Curaçao (Herbehereak)
Kroazia		Faroe uharteak (Danimarka)
Danimarka (**)		Groenlandia (Danimarka)
Eslovakia		Guernesey (Erresuma Batua)
Eslovenia		Islandia
Estonia		India
Finlandia		Man uharteak (Erresuma Batua)
Frantzia		Jersey (Erresuma Batua)
Gibraltar (Erresuma Batua)		Korea
Grezia		Mexiko
Hungaria		Montserrat (Erresuma Batua)
Irlanda		Niue
Italia		Norvegia
Letonia		Saba (Herbehereak)
Lituania		San Eustakio (Herbehereak)
Luxemburg		Seychelleak
Malta		Hegoafrika
Herbehereak (**)		
Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikulua a) letra (1)		Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikulua b) eta c) letrak (*)

EB duten herrialdeak	EBrekin hitzarmena	AMACen eraginpean izango diren herrialde eta jurisdikzioak eta aldi biko hitzarmena duten herrialdeak
2017	2017	2017
Polonia		
Portugal		
Erresuma Batua		
(2)		
Txekiar		
Errepublika		
Errumania		
Suedia		

## II. ERANSKINA

Herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak, elkarrekiko laguntzaren esparruan hainbat finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta haien inguruko informazioa emateko betebeharrak ezartzen duenak, eranskinaren VIII. atalaren D.4 idatz zatian aipatutako «Jurisdikzio parte-hartzailetzat» jotzen direnena.

Jurisdikzio parte-hartzaileen zerrenda

Albania	Ghana	Maurizio
Alemania	Gibraltar (Erresuma Batua)	Mexiko
Andorra	Granada	Monako
Aingira (Erresuma Batua)	Grezia	Montserrat (Erresuma Batua)
Antigua eta Barbuda	Groenlandia (Danimarka)	Nauru
Argentina	Guernesey (Erresuma Batua)	Niue
Aruba (Herbehereak)	Hungaria	Norvegia
Australia	India	Zeelanda Berria
Austria	Indonesia	Herbehereak
Barbados	Irlanda	Polonia
Belgika	Man uhartea (Erresuma Batua)	Portugal
Belize	Islandia	Erresuma Batua
Bermuda (Erresuma Batua)	Kaiman uharteak (Erresuma Batua)	Txekiar Errepublika
Bulgaria	Cook uharteak (Zeelanda Berria)	Errumania
Kanada	Faroe uharteak (Danimarka)	Errusia
Txile	Marshall uharteak	Samoa
Txina	Turk eta Caico uharteak (Erresuma Batua)	Saint Kitts eta Nevis
Zipre	Birjina uharte britainiarrak (Erresuma Batua)	San Marino
Kolonbia	Israel	San Martin (Herbehereak)
Korea	Italia	Saint Vincent eta Grenadinak
Costa Rica	Japonia	Santa Luzia
Kroazia	Jersey (Erresuma Batua)	Seychelleak
Curaçao (Herbehereak)	Kuwait	Hegoafrika
Danimarka	Letonia	Suedia
Eslovakia	Liechtenstein	Suitza
Eslovenia	Lituania	
Estonia	Luxemburg	
Finlandia	Malaysia	

Jurisdikzio parte-hartzaileen zerrenda

Frantzia

Malta



### III. ERANSKINA

Elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen urteko informazio aitopenen (289 eredu) edukia.

Agindu honetan xedatutakoa betez Arabako Foru Aldundiari helaraziko zaizkion mezu informatikoetan argibide hauek agertu behar dira, otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuak, elkarri laguntzearen esparruan finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza identifikatu beharra eta haien buruzko informazioa eman beharra ezartzen duenak, xedatutako moduan eta baldintzak betez:

Informazio aitopena aurkeztera behartuta dagoen finantza entitateari dagokionez:

1. IFZ
2. Izena edo sozietatearen izena
3. Helbidea; gutxienez datu hauek jaso behar dira:
  - 3.1. Adierazitako helbidea zein herrialdean dagoen
  - 3.2. Kalea edo bide publikoaren izena
  - 3.3. Zenbakia
  - 3.4. Solairua, ataria edo eskailera
  - 3.5. Solairua edo atea
  - 3.6. Barrutia edo auzoa
  - 3.7. Posta kutxa
  - 3.8. Posta kodea
  - 3.9. Hiria edo udalerria
  - 3.10. Probintzia, eskualdea edo estatua
4. Egoitza dagoen herrialdea
5. Ekitaldia; aitopena zein urte natural dagokion zehaztu behar da
6. Aitorpen osagarria edo ordezkoa

Finantza entitateek egindako aitopen osagarriak edo ordezkoak jasotzen dituzten mezu informatikoak aurkezteko, une bakoitzean Arabako Foru Aldundiaren webgunean (<http://www.araba.eus>) zehaztutakoari jarraitu beharko zaio. Baldin, eginbide arauak aplikatuz, finantza entitateak erabakitzen badu finantza kontu bati buruz informazioa eman beharra dagoela, finantza kontu horri buruzko datu hauek eman beharko dira:

7. Kontu zenbakia; adierazi behar da ea IBAN kodea edo banku kontuko beste zenbaki bat den, ISIN kodea edo baloreen identifikaziorako beste zenbaki bat den, edo beste identifikadore bat den, esate baterako: aseguru kontratu baten erreferentzia zenbakia. Baldin aitorpenerako aurkeztutako finantza kontuak IBAN edo ISIN kodea badauka, kode hori 289 erduan adierazi behar da.

8. Urte naturalaren amaieran kontuan izan den guztirako saldoa edo balioa. Aseguru kontratuen, balio efektiboko aseguru kontratuen eta urteko ordainketak egiteko kontratuen kasuan, balio efektiboa edo erreskate balioa hartuko da aintzat.

9. Kontuko saldoa zein monetatan dagoen adierazita.

10. Ordaindutako edo idaztohartutako zenbatekoak, aitortutako kontuari dagokionez.

Zaintzako kontua bada, honako hauek adierazi beharko dira: urte naturalean kontuko aktiboek sortu interesen zenbateko gordina, dibidenduen guztirako zenbateko gordina eta beste errenta batzuen guztirako zenbateko gordina, kontuan edo berari dagokionez idaztohartu edo ordaindutakoak. Aitortu beharko dira, halaber, informazioa eman beharra daukan finantza entitateak kontuaren titularraren zainzaile, artekari, agente izendatu edo ordezkari lanak egin dituen urte naturalean kontuko finantza aktiboak salduta edo amortizatuta sortutako guztirako sarrera gordinak, kontuan idaztohartu edo ordaindutakoak.

Baldin informazioa emateko beharrari lotuta dagoen kontua gordailu kontua bada, urte naturalean kontuan idaztohartu edo ordaindutako interesen guztirako zenbateko gordina aitortu beharko da.

Kontua ez bada aurreko lerroaldeetan aipatzen direnetakoa, informazioa eman beharra daukan finantza entitatea zergapekoa edo zorduna den urte naturalean kontuaren titularrari kontuan idaztohartu edo ordaindutako guztirako zenbateko gordina adierazi beharko da, urte naturalean kontuaren titularrari egindako amortizazioen edo diru itzultzeen guztirako zenbatekoa barne.

Interesen, dibidenduen, sarrera gordinen, amortizazioen, itzultzeen eta bestelako zenbatekoen aitopena bakoitza bere aldetik egin behar da, eta zenbateko horiek zein monetatan adierazten diren agertu behar da.

11. Urtean zehar kontua itxi bada, horren berri eman behar da. Baldin aitortutako kontua urtean zehar itxi bada, 289 erduan ez dira adierazi beharko III. eranskin honetako 8. eta 9. puntuetan xehatutako datuak.

12. Kontu dokumentatu gabea bada, horren berri eman behar da.

13. Kontu inaktiboa bada, horren berri eman behar da.

Finantza kontu bakoitzari eta kontuen titular bakoitzari buruzko argibide hauek adierazi behar dira:

14. Egoitza dagoen herrialdea edo jurisdikzioa.

Kontu dokumentatu gabeen kasuan, finantza entitatearen egoitza herrialdea adieraziko da.

**15.** Kontuaren titularraren egoitza dagoen estatu bakoitzak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ); zein herrialdek edo jurisdikzioek eman duen adierazi behar da.

Aurrekoa gorabehera:

**a)** Kontua lehendik egon bada, ez da nahitaez adierazi behar IFZ, baldin eta datu hori ez badago finantza entitatearen erregistroetan eta aplikatu beharreko araudiaren arabera ez badauka datuok bildu beharrik.

Hala ere, finantza entitateak zentzuzko ahaleginak egin behar ditu IFZ eskuratzeko lehendik egon den kontuari informazioa eman beharra aplikatu behar zaiola argitzen den urtearen ondoko bi urte naturaletan.

**b)** Egoitza dagoen herrialdeak edo jurisdikzioak ez badu IFZrik ematen, entitateak ez dauka IFZ zehaztu beharrik.

**16.** Pertsona fisikoaren kasuan, izen osoa; argibideak bereiz eman behar dira, honela:

**16.1.** Lehenengo izena. Baldin kontuaren titularrak izen bat baino gehiago badu, lehenengo ageri den izena adieraziko da.

**16.2.** Bigarren izena. Baldin kontuaren titularrak izen bat baino gehiago badu, bigarren ageri den izena adieraziko da.

**16.3.** Abizena edo abizenak.

**17.** Sozietatearen izena, pertsona fisikoa ez bada.

**18.** Helbidea; gutxienez datu hauek jaso behar dira:

**18.1.** Adierazitako helbidea zein herrialdetan dagoen.

**18.2.** Kalea edo bide publikoaren izena.

**18.3.** Zenbakia

**18.4.** Solairua, ataria edo eskailera

**18.5.** Solairua edo atea

**18.6.** Barrutia edo auzoa

**18.7.** Posta kutxa

**18.8.** Posta kodea

**18.9.** Hiria edo udalerría

**18.10.** Probintzia, eskualdea edo estatua

**19.** Jaioteguna, baldin kontuaren titularra pertsona fisikoa bada.

Aurrekoa gorabehera, kontua lehendik egon bada, ez da nahitaez adierazi behar jaioteguna, baldin eta datu hori ez badago finantza entitatearen erregistroetan eta aplikatu beharreko araudiaren arabera ez badauka datuok bildu beharrik.

Hala ere, finantza entitateak zentzuzko ahaleginak egin behar ditu jaioteguna eskuratzeko lehendik egon den kontuari informazioa eman beharra aplikatu behar zaiola argitzen den urtearen ondoko bi urte naturaletan.

**20.** Jaiolekua (hiria eta estatua adierazi behar dira), baldin kontuaren titularra pertsona fisikoa bada.

Aurrekoa gorabehera, titularra non jaio den adierazi beharra egoteko honako inguruabar hauek gertatu behar dira:

1) Finantza entitateak datu hori eskuratu eta jakinarazi beharra edukitzea edo eduki izana 2015eko urtarrilaren 5ean indarrean egon den Europar Batasunaren tresna juridikoren bat dela eta.

2) Datua eskuragarri egotea entitateak bilaketa elektronikoaren bidez kudeatzen dituen datuen artean.

21. Kontuaren titular mota. Aitorpenaren xede den finantza kontuaren titularra zer motatakoa den zehaztu beharko da:

a) Pertsona fisikoa

b) Entitate ez finantzario pasiboa, zeinetan kontrola gauzatzen duten pertsona bat edo gehiago dauden, informazio aitorpena aurkeztu behar den herrialdean edo jurisdikzioan bizi direnak.

c) Informazioa emateko beharrari lotuta dagoen entitatea.

d) Entitate ez finantzario pasiboa, informazioa emateko beharrari lotuta dagoena.

Baldin finantza kontuaren titularren bat aurreko idatz zatian aipatutako kategorietatik bigarrean sartzen bada, jarraian adierazitako argibideak sartu beharko dira titularren horien kontrola daukaten pertsona fisikoei buruz.

22. Kontrola daukan pertsona mota. Adierazi beharko da zein titulurekin gauzatzen duen kontuaren titularren gaineko kontrola; esate baterako, titular edo onuradun gisa.

23. Egoitza dagoen herrialdea edo jurisdikzioa.

24. Kontuaren titularren egoitza dagoen estatu bakoitzak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia; zein herrialdek edo jurisdikzioek eman duen adierazi behar da.

Aurrekoa gorabehera:

a) Kontua lehendik egon bada, ez da nahitaez adierazi beharko IFZ, baldin eta datu hori ez badago finantza entitatearen erregistroetan eta aplikatu beharreko araudiaren arabera ez badauka datuok bildu beharrik.

Hala ere, finantza entitateak zentzuzko ahaleginak egin beharko ditu IFZ eskuratzeko lehendik egon den kontuari informazioa eman beharra aplikatu behar zaiola argitzen den urtearen ondoko bi urte naturaletan.

b) Egoitza dagoen herrialdeak edo jurisdikzioak ez badu IFZrik ematen, entitateak ez dauka IFZ zehaztu beharrik.

25. Lehenengo izena. Pertsona bati buruz informazioa eman behar bada eta izen bat baino gehiago badu, lehenengo ageri den izena adieraziko da.

26. Bigarren izena. Pertsona bati buruz informazioa eman behar bada eta izen bat baino gehiago badu, bigarren ageri den izena adieraziko da.

27. Abizena edo abizenak.

28. Helbidea; gutxienez datu hauek jaso behar dira:

28.1. Adierazitako helbidea zein herrialdetan dagoen.

28.2. Kalea edo bide publikoaren izena.

28.3. Zenbakia.

28.4. Solairua, ataria edo eskailera.

**28.5.** Solairua edo atea.

**28.6.** Barrutia edo auzoa.

**28.7.** Posta kutxa.

**28.8.** Posta kodea.

**28.9.** Hiria edo udalerrria.

**28.10.** Probintzia, eskualdea edo estatua.

**29.** Jaioteguna.

Aurrekoa gorabehera, kontua lehendik egon bada, ez da nahitaez adierazi beharko jaioteguna, baldin eta datu hori ez badago finantza entitatearen erregistroetan eta aplikatu beharreko araudiaren arabera ez badauka datuok bildu beharrik.

Hala ere, finantza entitateak zentzuzko ahaleginak egin beharko ditu jaioteguna eskuratzeko lehendik egon den kontuari informazioa eman beharra aplikatu behar zaiola argitzen den urtearen ondoko bi urte naturaletan.

**30.** Jaiolekua; hiria eta estatua adierazi behar dira.

Aurrekoa gorabehera, titularra non jaio den adierazi beharra egoteko honako inguruabar hauek gertatu behar dira:

1) Finantza entitateak datu hori eskuratu eta jakinarazi beharra edukitzea edo eduki izana 2015eko urtarrilaren 5ean indarrean egon den Europar Batasunaren tresna juridikoren bat dela eta.

2) Datua eskuragarri egotea entitateak bilaketa elektronikoaren bidez kudeatzen dituen datuen artean.

(1)

6/2017 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa, ezartzen duena identifikatu beharra finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza, eta haiei buruzko informazioa eman beharra, elkarri laguntzearen esparruan.

(2)

Salbu "AMACen eraginpean izango diren herrialde eta jurisdikzioak eta alde biko hitzarmena duten herrialdeak" zutabearen dauden lurraldeak [otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikulua b) eta c) letrak].